

ISRAELEN NORAEZA

Estatua eratu zenetik zatiketa gero eta handiagoa da, baita juduen artean ere

Israelgo gizarteak aldaketa handiak izan ditu 75 urteko ibilbide zala-partatsuan, eta gaur egun ez daki nola aurrer egin gero eta zatiketa hauskorragoaren erronkari.

Kibbutz mugimenduaren desagertzea irudikatzen du, ezerk baino hobeto, norabide hori. 1948ko maiatzaren 14an Israelgo Estatua jaio zenean, sortzaileetako batzuek kibbutzak –herrixka kolektibistak– zabaldu zituzten arabiar herrialdeekiko mugetan, bi helbururekin: alde batetik herrialdea defendatzea, eta bestetik, nolabaiteko gizarte sozialista eratzea, jatorrizko sionismoari jarraiki.

Hasieratik gutxiengo batek bere egiten zuen mugimendua izanik ere –garai oparoen ere juduen %7,5 bizi zen halako nekazaritza eremuetan–, Israelen eraikitze-prozesuaren sinbolo handi bilakatu zen.

Yiron kibuttza 1949an sortu zen, Libanorekiko mugatik ki-

📁 **EKIALDE HURBILA** / Dabid LAZKANOITURBURU

Estatu moduan eratu zenetik bekatua du Israelek: palestinarren lurraldean eta haien bizkar gainean sortu izana. Dena den, 75 urte hauetan, gero eta handiagoa da barne zatiketa, politikoa, etnikoa eta ekonomikoa. Ekialde Hurbileko «demokrazia bakarraren» eta haren hazkunde ekonomikoaren azpian noraeza da nagusi.

lometro gutxira, Israel-Arabiar Gerran (1948-1949) juduek suntsitutako herri palestinar baten hondakinen gainean.

Bertan jaio ziren haurrek 70 urte inguru dituzte eta nostalgiaz oroitzen dute garai hura.

Egun Yironek nekazaritza eta teknologia arloko enpresa bat hartzen du, gela amankomunak desagertu egin dira, eta apartamentuak sortu.

1980ko hamarkadako krisi ekonomikoak eta Sobietar Batasunaren komunismoaren gainbeherak eredu kooperatiboa zalantzan jartzen lagundu

zuten eta balio indibidualistak eta familiarrak indartu zituzten. Bide batez, presio demografikoak ere eragin zuzena izan zuen kibuttzen eraldaketa liberean.

75 urtetan, Israelgo populazioa planetakoa baino azkarra- go hazi da. Gaur egun 9,7 milioi biztanle baino gehiago ditu; horietatik, 7,1 milioi juduak dira (gutxi %73,5) eta 2 milioi, arabiarak (%21). Gainerakoak, batez ere, juduak ez diren etor- kinak dira.

Munduko hainbat tokitatik etorritako juduen immigra-

zioak eragindako eztanda de- mografikoak – Sobietar Bata- sun ohiak 1990eko hamarka- daren bueltan egindako ekarpen masiboarekin– eta ugalkortasun tasa altuak ere Israelgo gizartearen aldaketa sakonak azaltzen dituzte.

Armada identitate naziona- laren integrazio eta eraikuntza faktorea da, baina populazioa- ren zati handi batek ez du sol- daduska egiten (judu ultraor- todoxo ia guztiak, esaterako– biztanleriaren % 12– eta gu- txiengo arabiarra).

LAU «TRIBU»

Reuven Rivlin presidente ohiak Israelgo gizartea osa- tzen zuten lau «tribuak» iden- tifikatu zituen 2015ean. Eta esan zuenez, hiru tribu juduek –laikoak, erlijioso nazionalis- tak eta ultraortodoxoak– eta tribu arabiarak ezin dute el- kar ikusi ere egin; ez dira hiri berberetan bizi, ez dituzte egunkari berak irakurtzen, ez dira eskola beretara joaten.

Rivlinek sailkatzen dituen «tribuen» baitan ere elkar uler-

Netanyahuren erreforma nazionalaren aurkako protesta Tel Aviven.
Ahmad GHARABL I AFP



tze falta nabaria da: judu sefardi eta ashkenazien artean, etorkin berri eta ‘sabren’ (Israelen jaioak) artean, eta, arabiar aldean, musulman, kristau eta druzoen artean.

Mugimendu sionistaren sortzaileen jaioterri izan ziren Europa erdialdeko eta ekialdeko herrialdeetako ashkenaziek urte luzez aginte politiko, judicial eta ekonomikoa izan dute Israelen.

1950 eta 1960ko hamarkadetan, Irakeko, Yemengo eta Magrebeko juduak (hebreeraz ‘mizrahim’ deituak) Israelera iritsi ziren eta hiri berrietan bizitzen hasi ziren.

Alderdi Laboristak, 1977. urtera arte Israelgo politikaren jaun eta jabe izandakoak, erabat mespretxatu zituen «etorkin» haiek.

ASKHENAZIEK BEHERA

Egun elite ashkenaziarra demografikoki zaharkituta dago, jada ez da hautesleriaren ordezkari, eta gizartean gora egiteko grina duten mizrahimek ez dute haren zilegitasun historikoa onartzen.

Bide batez, iritzi publikoa eskuinera lerratzen ari da azken urteotan; besteak beste, bake prozesuaren porrotak eta palestinarren erantzun suizidek bultzatuta. Beste arrazoi bat ere bada: eskuin erlijiosoak dozenaka urtez Hezkuntza Ministerioa bere egin izanak belaunaldi gazteengan identitate politiko berriak finkatzeko orduan izan duen eragina.

Urtarriletik hona, Israelek bere historian ezagutu duen gobernurik eskuindarrenetakoak justizia erreformatzeko bultzatu duen proiektuak inoiz baino zatiketa handiagoa eragin du gizartean.

Gobernuak Auzitegi Gorenaren eskumenak murriztea



beharrezkotzat jotzen du, hiru botereak berronkatzeko bidean; aitzitik, Israelgo demokraziarentzako mehatxu gisa ikusten dute aurkakoeak, eta horrexegatik inoizko herri-mugimendu handienetako bat sortu dute.

Bertako analistek diotenez, mugimendu horrek Israelgo gizartearen muturreko zatiketaren aurka egiten du, justizia, etika eta berdintasunaren zentzuan balio demokratikoei

David Ben-Gurion lehen ministroa, Estatu israeldarraren sorreraren berri ematen, Juduen Nazio Kontseiluaren aurrean, eta Theodor Herzl sionismoaren sortzailearen irudia gainean duela. AFP

atxikita dago eta Israelen sustarai sozialistekiko nolabaiteko nostalgia adierazten du. Baina arestian aipatutako oinarritzko bekakua saihesten dute.

Hau da, mugimendu horrek gutxiengo arabiarra albo batera uzten du. Israelen bizi diren edo irauten duten palestinarrentzat demokrazia hitz ustela baino ez da.

Hor daude azken garaian demokraziaren eta herritarren arteko berdintasunaren kon-

tzeptua urratu duten eta palestinarrekiko apartheidia inposatu duten legeak; kasu gordinena 2018an Israel «herri juduaren nazio-estatu» gisa definitu zuena da.

Aditu israeldarrek beste arazo batzuk ere aipatzen dituzte: klientelismoa eta gizarte barruan taldeen arteko lehia bortitza eragiten duen proportzionaltasun integralean oinarritutako hauteskunde sistema, kasu. Eta arazoaren oinarrian Estatuaren egitura bera dagoela diote.

Horrela, beraz, eta konstituziorik ez dagoela kontuan hartuta, irtenbidea herrialdearen nortasuna israeldar gisa definitzeki etor daitekeela diote.

Eta palestinarrek, non?

DESBERDINTASUN SOZIALAK ERE GORA

Ez da, ordea, jatorrizko zatiketarena Israelek bizi duen arazo larri bakarra. Klase sozialen inguruan ere gizarte oso zatitua dago, herrialdea munduko

75 URTE, 10 GAKO ETA HAMAIIKA GERRA

1948: Independentzia. Maiatzaren 14an, David Ben Gurionek Israelgo estatuaren independentzia aldarrikatu zuen, britainiarren 28 urteko agintaldiaren ondoren. Arabiarren aurkako lehen gerra hasi zen ondoren, Nakba (ikus 4, 5, 6 orrialdeak).
1967: Sei Egunetako Gerra. Israelek Ekialdeko Jerusalem, Zisjordania, Gaza, Golango goi-ordokia eta Sinai penintsula bereganatu zituen.

1973: Yom Kippur Gerra
1978: Bakea Egiptorekin
1982: Libanoko inbasioa
1993: Osloko Akordioak
1995: Rabinen magnizidioa
2000: Bigarren Intifada
2005: Gazatik erretiratzea
2009: Benjamin Netanyahu hurrengo itzulera. Lehen ministroak Israelgo azken hamabost urteotako politika erabat baldintzatu du.

ekonomia oparoenen artean dagoen arren, eta nekazaritzatik hasi eta puntako tekniketaino, negozio arrakastatsu ugari dituen arren.

Israel «start-up naziotzat» jotzen da, eta 14. postuan dago herrialdeen 2022ko sailkapenean, biztanleko Barne produktu Gordinaren (BPG) arabera, eta Europako lehen lau ekonomien aurretik (Alemania, Erresuma Batua, Frantzia eta Italia), Nazioarteko Diru Funttsak dioenez.


Baina Israelgo pobreziaren aurkako eta elikagaien laguntzarako GKE nagusia den Late-teko lehendakari Gilles Darmonen hitzetan, «'start-up nation' gainetik 'soup kitchen' (herri zopa) nation ere bada-go».

Alde batetik, Tel Aviv hiriburu eta bere 'high-tech'-a dago, oparotasunari dagokionez munduko hiririk aberatsenetarikoa. Baina, bestetik, 312.000 familiak baino gehiagok (familien %9,7) elikadura segurtasun falta larria dute.

Hazkunde ekonomikoa %6,5ekoa izan da 2022. urtean, 2021eko %8,6tik behera, baina Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Antolakundeko (ELGA) herrialdeen batez bestekoa (%2,8) baino askoz ere handiagoa. Inflazioa nahiko kontrolatuta dago, baita aurrekontu-defizita ere.

Zibersegurtasunean eta bioteknologia eta nekazaritzaren berrikuntzan punta-puntan da, eta azken horretan 60ko hamarkadan hasi zen Negeveko basamortuan ureztatze teknologiak garatzen, nazioartearen inbidiarako. Armagintza, nola ez bada, Israelgo ekonomiaren euskarrietako bat da.

Baina herrialdearen erdiguneko kostaldeko hirien inguruan hedatu den arrakasta ho-



ri alde batera utzita, errealitatea beste bat da.

Shimshonen, kostaldeko Ashkelon hiriko hegoaldeko auzoan, hormigoi zaharkitua eraikinetako barra luzeak daude bata bestearen atzetik. 1950eko hamarkadaren amaieran presaka eraiki zituzten, immigrazio masiboari aurre egiteko, batez ere Afrika iparraldetik zetorrenari. Gaur egun Etiopiatik eta Errusiatik etorritako etorkinak bizi dira. Eta ordutik hona inoiz ez dira

Hagannah judu talde armatuaren lubakia, Jaffa herrian.
AFP

Palestinarren aurkako apartheid ahaztu gabe, gero eta nabariagoak dira juduen arteko aldeak: sefardi eta ashkenaziak, etorkin berriak eta sabrak (Israelen jaioak), mizrahimak...

«30 urte pasatxoan, munduko gizarte berdinzaleen etako bat izatetik (...) gizarte oso berdingabe eta indibidualista izatera pasatu gara»

etxebizitza horiek birgaituak izan.

JANA EDO BOTIKAK

Etxe-aurrealde horixkak lehortzen ari diren arropez josita daude, balkoi txiki beltzetatik zintzilik, eta paper koipe-tsuz beteta daude atzeko patioak. «Denok gaude kinka larrian. Auzo osoa! Laguntza publikoaren dirulaguntzekin nekez iraun ahal da bizirik», dio Esther Benhamouk, 73 urteko erretiratuak, bere apartamenturainoko eskailerak nekez igotzen dituen bitartean.

«Aukeratu egin behar dut: botikak edo jana erosi», salatu du ia altzaririk ez duen bere egongelan.

Biztanleriaren (9,7 milioi) %27 baino gehiago pobrezian bizi da, Latet elkarteak 2022. urtearen amaieran argitaratutako zenbakien arabera. Israel-ek ELGAko hirugarren pobre-

zia-tasarik altuena du, Costa Ricaren eta Bulgariaren atzetik, eta soilik Mexikoren edo Turkiaren aurretik.

«30 urte pasatxoan, munduko gizarte berdinzaleen etako bat izatetik (...) gizarte oso berdingabe eta indibidualista izatera pasatu gara», dio Darmon jaunak: «Estatuak utzi egin dio bere eginkizuna bermatzeari, merkatuaren ondorioak arintzeari eta aberastasunak birbanatzeari», salatu du.

Ongintzako erakunde asko behartsuenen beharrei aurre egiten saiatzen ari dira, hala nola Kiryat Malakhin, Israel hegoaldeko hiri txiki batean, non Nikol Jibrilek, 72 urtekoak, janaria banatzen duen behartsuenen artean duela 30 urte-tik. «Familia bati laguntzen diozunean, beste bat dator. Hori ez da inoiz amaitzen. Egoera okertzen ari da etengabe», kexu da.